

Aseguru produktuari buruzko informazio dokumentua

Enpresa: OCCIDENT GCO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, SOCIEDAD UNIPERSONAL

Produktua: Ibilgailuak

Erregistratua: Espainian. Aseguru erakundearen baimen zk.: C0468

Aseguru produktuari buruzko kontratu aurreko eta kontratu informazio osoa beste dokumentu batzuetan ematen da, hala nola informazio oharrean, baita aseguru kontratuaren baldintza orokorrak, partikularrak eta, hala badagokio, bereziak ere.

Zertan datza aseguru mota hau? Aseguru honek erantzun nahi dio ibilgailu motordunak nahitaez aseguratzeko beharrari. Aukera ematen dio bezeroari oinarrizko aseguru bat edo aseguru zabalago bat aukeratzeko, estaldurak eta zerbitzuak gehituz ibilgailuaren, gidariaren eta bidaiarien beharren arabera.



Zer dago aseguraturuta?

Kontratugileak aseguru ditzakeen aseguru estaldura eta arrisku nagusien laburpena, aukeraturako modalitatearen arabera:

Hirugarrenei eragindako kalteak

- ✓ Erantzukizun Zibila (EZ) ibilgailu motordunen zirkulazioan.
Nahitaezko EZ eta Borondatezko EZ barne
- ✓ Erantzukizun Zibila oinezko eta txirrundulari gisa
- ✓ Erantzukizun Zibila Sutea

Zure interesen defentsa

- ✓ Defentsa juridikoa
- ✓ Kalteengatiko erreklamazioa
- ✓ Telefono bidezko aholkularitza juridikoa
- ✓ Lokalizazioa, defentsa eta izapidetzea trafikoko arau hauste administratiboetan
- ✓ Trafiko isunen alerta zerbitzua
- ✓ Puntuak berreskuratzea
- ✓ Hileko kalte-ordaina gidabaimena galtzeagatik edo aldi baterako eteteagatik
- ✓ Telefono bidezko aholkularitza medikoa

Zure ibilgailuaren babesa

- ✓ Beirak apurtzea
- ✓ Sutea
- ✓ Lapurreta
- ✓ Kalte propioak
- ✓ Animalia zinegetikoekin talka egiteak eragindako kalteak



Zer ez dago aseguraturuta?

Oro har ez dira estalduraren barruan sartuko honako kalte hauek, eta estaldura bakoitzak bere bazterketa espezifikoa izan ditzake:

- ✗ Kontratugileak, jabeak, asegurudunak edo gidariak bere borondatez eginikoak.
- ✗ Alkoholaren, drogen eta antzekoen eraginpean gertaturako istripuak.
- ✗ Aseguratutako ibilgailua erabiltzea gidabaimenik gabe edo gidabaimena erretiratzeko zigorra hautsiz, edota kalteak eragin dituen gidaria "sorospen betebeharra ez betetzeagatik" kondenatzen dutenean.
- ✗ Kontratugileak, asegurudunak edo gidariak arazko xedapenak urratzea (pertsonek garraiatzeko baldintzak eta haien kopurua, garraia daitezkeen gauzen edo animalien pisua eta neurria, edo horiek egokitzeko modua), baldin eta arau haustea izan bada istripua eragin duen arrazoia.
- ✗ Garraiatutako gauzek izandako kalte materialak.
- ✗ Aseguratutako ibilgailuak lasterketetan, txapelketetan edo edozein motatako lehiaketetan parte hartzean gertaturakoak.
- ✗ Asegurudunaren defentsa trafiko segurtasunaren aurkako delituetan edo sorospen betebeharra ez betetzean.
- ✗ Matxura mekanikoak.
- ✗ Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak bere gain hartutakoak.



Badago murrizketarik estalduran?

- ✓ Fenomeno atmosferikoek eragindako kalteak
- ✓ Ordezko ibilgailua
- ✓ Giltzen kopia

Pertsonen babesa

- ✓ Gidariaren istripuak
- ✓ Bidaiariaren istripuak
- ✓ Ehorzketa gastuak
- ✓ Osasun laguntza
- ✓ Laguntza psikologikoa

Beste zerbitzu batzuk

- ✓ Laguntza bidaian, ibilgailuari eta pertsoneri
- ✓ Gestoriako zerbitzua
- ✓ Hirugarrenen kaudimengabezia
- ✓ Kalte materialak konpontzeko finantzaketa
- ✓ Ibilgailuaren garbiketa

Bai, honako hauek dira horietako batzuk, eta estaldura bakoitzak bere murrizketa espezifikoa izan ditzake:

- Behin nahitaezko erantzukizun zibilagatiko kalte-ordaina ordainduta, aseguratzaileak hura erreklamatu ahal izango dio:
 - Gidariari, ibilgailuaren jabeari eta asegurdunari, baldin eta kaltea gertatu bada haietako edozeinen dolozko jokabideagatik edo edari alkoholodun, droga toxiko, estupefaziante edota substantzia psicotropikoen eraginpean gidatzeagatik.
 - Kalteen erantzukizuna duen hirugarrenari.
 - Aseguruaren kontratugileari edo asegurdunari, legeak ezarritako arrazoiengatik, eta ibilgailua gidabaimenik ez duen pertsonak gidatzeagatik.
- Aseguratzaileak erabat galdutzat joko du aseguratutako ibilgailua baldin eta konponketaren aurrekontu zenbatekoa kasu bakoitzean ordain daitekeen balioaren % 80tik gorakoa bada.



Non egongo naiz babestuta?

- ✓ Kontratu honen estaldurek balioko dute Europako Esparru Ekonomikoaren lurralde osoan eta esparru horretako estatu kideen aseguru bulego nazionalen eta beste estatu elkartu batzuetako (Andorra, Serbia eta Suitza) bulegoen arteko akordioari atxikitako estatuen lurraldean.
- ✓ Hala ere, berme batzuek lurralde eremu desberdinak dituzte, eta kasu horietan aplikatuko da eremu bakoitzean zehaztutakoa.



Zeintzuk dira nire betebeharrak?

- Asegurua kontratatzean informazio zehatz eta egiazkoa ematea, eta, kontratuaren indarraldian arriskuan aldaketarik izanez gero, horren berri ematea lehenbailehen.
- Asegurua ordaintzea dagokion ordainagiria jaso bezain pronto.
- Aseguratzaileari istripuaren berri ematea 7 eguneko epean, haren berri izandako egunetik kontatzen hasita, eta istripuari eta haren ondorioei buruzko informazio guztia ematea, baita eskatzen den informazio eta dokumentazio gehigarri guztia ere; halaber, eskura dauden baliabide guztiak erabiltzea istripuaren ondorioak ahal den neurrian arintzeko.



Noiz eta nola egin behar ditut ordainketak?

Kontratatzeko unean eta kontratuan adierazitako ordainketa moduaren arabera. Kontratu luzatzen bada, kontratu berritzearen hasiera datan. Ordainketa egingo da banku helbideratze edo kreditu/zordunketa txartel bidez.



Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Behin lehen ordainketa eginda, kontratuan adierazitako orduan eta egunean hasi eta amaituko da estaldura.



Nola desegin dezaket kontratua?

Aseguru erakundeari bidalitako jakinarazpen idatziaren bidez, indarrean den aseguru aldia amaitu baino hilabete lehenago gutxienez.